

# MVSiKASTE

Musika Astea
Errenterian
Maiatzak 15tik-20ra
1.978an

Semana Musical
en Rentería
15 al 20 de Mayo
de 1.978





# MUSIKA ASTEA ERRENTERIAN

Maiatzak 15tik - 20ra, 1978an

# SEMANA MUSICAL EN RENTERIA

15 al 20 de Mayo de 1978

Antolatzaille: Andra Mari Korala
Babeslea: Errenteriako Udaletxea

Diru Laguntzaz:
Aurrezki Kutxa Munizipala
Aurrezki Kutxa Provintziala
Angel Iglesias, S.A.
Lan Kide Aurrezkia
Aldundi Foral Agurgarriko
Kultura Laguntzaillearen Batzordea
Musikako Zuzendaritza Orokorra
Kulturako Ministerioa

Organiza: Coral Andra Mari
Colabora: Ayuntamiento de Rentería

Patrocinan:
Caja de Ahorros Municipal
Caja de Ahorros Provincial
Angel Iglesias, S.A.
Caja Laboral Popular
Junta de Cooperación Cultural
de la Excma. Diputación Foral
Dirección General de Música
Ministerio de Cultura

Fotografía: Laboratorios Laber

# HILARION ESLAVA HIL ZENEKO LEHEN EHUNURTEBURUA (1807-1878)

# 1er CENTENARIO DE LA MUERTE DE HILARION ESLAVA (1807-1878)

Hilarión Eslava hil zeneko ehunurteburua ospatzerakoan bere bizitzaren emana eta geroztik, denboran zehar, bere oroitzapenak izan duen aldaketa ikusteak inpresioa sortzen du.

XIX. mendean gailur gailurrean zeukaten beretarrek ukitu ezinezko idolo bezala. Baina XX mendeak alde askotatik eraso izan dio, bere izen ona kendu, aldare burutik, ezeren errukirik gabe, lurrera jaurtiz.

Baina, nor dugu Hilarión Eslava?

MUSIKASTE 78k bere musika lanak programatu eta ezagutarazi nahi izan ditu eta, horretaz gain, taldelanean berari buruzko istudio lan bat argitaratu nahi izan du, gerora dagokion lekuan egon dadin.

MUSIKASTE 78 honetan, beste honoko euskal musikagileen jaiotzaren ehunurteburua jasotzen da:

Beltran Pagola (1878-1950), Sorozabal, Iturralde, Urteaga, Garbizu, Eskudero eta hainbat musikagizonen irakaslea.

Sekundino Esnaola (1878-1929) Donostiako Abesbatzaren egiazko sortzaile eta eragilea.

Juan María Ugarte (1878-1956) aintzat hartu izan ez duten apaiza apala. 1930 urtea baino lehenago erabiltzen zituen bere partituretan politonalidadea eta atonalidadea.

José Franco (1878-1951), aragoiarra berez, eta Bizkaian bizi izan zena, bandatarako hainbat euskal musika lan egin izan zuena.

Al cumplirse los cien años del fallecimiento de Hilarión Eslava, impresiona asomarse a contemplar la trayectoria de su vida y la evolución que ha sufrido su recuerdo con el tiempo.

Idolo indiscutible para los suyos en el siglo XIX, ha sido el siglo XX el que desde distintos puntos ha torpedeado su prestigio, para derrocarlo de manera inmisericorde.

Y ¿quién es Hilarión Eslava?

MUSIKASTE 78, además de programar y promocionar su música, se ha empeñado en publicar un estudio de colaboración que lo coloque definitivamente en el puesto que le corresponde.

Señalamos también en MUSIKASTE 78 la conmemoración del I Centenario del nacimiento de los siguientes compositores vascos:

Beltrán Pagola (1878-1950), profesor de los Sorozábal, Iturralde, Urteaga, Garbizu, Escudero, etc...

Secundino Esnaola, (1878-1929), verdadero forjador del Orfeón Donostiarra.

Juan María Ugarte, (1878-1956), humilde sacerdote que antes de 1930 practicaba en sus partituras la politonalidad y la atonalidad, aunque fuera un incomprendido.

José Franco (1878-1951), el aragonés afincado en Vizcaya, que tanto trabajó por la música vasca para banda.

# EGITARAU OROKORRA
# PROGRAMA GENERAL

Astelenez 15
**Haserako Ospakizuna**

Astearteaz 16
**Euskal Musika Organoz**

Asteazkenez 17
**Euskal Klasikoak**

Ostegunez 18
**Koral Eguna**

Ostiralez 19
**Abangoardiako Euskal Musikagileak**

Larunbatez 20
**Amaierazko Kontzertua**

Lunes 15
**Acto de Apertura**

Martes 16
**Música Vasca al Organo**

Miércoles 17
**Clásicos Vascos**

Jueves 18
**Día Coral**

Viernes 19
**Músicos Vascos de Vanguardia**

Sábado 20
**Concierto de Clausura**



# HASERA GISAKO OSPAKIZUNA

# ACTO DE APERTURA

Maiatzak 15, astelehena
Arratsaldeko 8etan

Udalako Areto
Nagusian

«Hilarión Eslavaren nortasunaz» mahainguru bat izango da. Bertan parte hartuko dutenak:

Samuel Rubio, Espainako Musikologia Elkartearen lehendakaria.

José López Calo, Espainako Musikologia Elkartearen lehendakariordekoa.

Dionisio Preciado, Musikologian doktoratua.

Antonio Gallego, Real Academia de Bellas Artes delakoaren ofizial nagusia.

Antonio Martín Moreno, Barcelona Unibertsitate Autonomoan Musika Kondairaren irakaslea.

Joaquín Pildáin, Madrileko Kontserbatorioko irakaslea.

José Antonio Arana Martija, abokatu eta ekonomista, «Música vasca» deritzan liburuaren egilea.

Zazpi idazleok Hilarión Eslavaz egin den lan monograficoan hartu dute parte. MONOGRAFIA DE HILARION ESLAVA izenez ospakizun honetan aurkeztuko den lana da. Moderatzaile bezala José Luis Ansorena ariko da, zein monografiaren koordinatzailea eta biografiari dagokion atalaren egilea baita.

Donostiako Aurrezko Kutxa Munizipalaren babespean egingo da ospakizun hau.



# Lunes, 15 de Mayo
# 20 horas

Sala Capitular
del Ayuntamiento

«Personalidad de Hilarión Eslava», mesa redonda en la que intervendrán:

Samuel Rubio, presidente de la Sociedad Española de Musicología.

José López Calo, vicepresidente de la Sociedad Española de Musicología.

Dionisio Preciado, doctor en musicología.

Antonio Gallego, oficial mayor de la Real Academia de Bellas Artes.

Antonio Martín Moreno, profesor de Historia de la Música en la Universidad Autónoma de Barcelona.

Joaquín Pildáin, profesor del Real Conservatorio de Madrid.

José Antonio Arana Martija, abogado economista, autor del libro «Música Vasca».

Estos siete escritores han tomado parte en la elaboración de la «MONOGRAFIA DE HILARION ESLAVA», que será presentada en este acto. Actuará de moderador José Luis Ansorena, coordinador de los trabajos de la Monografía y autor del apartado dedicado a la biografía.

Patrocina: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.

# EVSKAL MVSIKA oRGANoZ
# MVSICA VASCA AL oRGANo



Maiatzak 16, asteartea
Arratsaldeko 8 etan

Andra Mari
Parrokia Zaharrean

Martes, 16 de Mayo
20 horas

Iglesia Parroquial de
Nª Sra de la Asunción

LEHEN SAIOAN

«Hilarión Eslavaren «Museo Orgánico Español» Historia laburra»

Ofertorio nº 6 .................... Pedro Albéniz
Elevación nº 7 .................... Damián Sanz
Dos versos de 7º tono .................... Hilarión Eslava
Elevación nº 3 .................... Hilarión Eslava
Ofertorio nº 2 .................... Hilarión Eslava

BIGARREN SAIOAN

Adagio, Andante eta Allegretto .......... Juan María Ugarte
(Laus Deo sortatik jasoa) (1878-1956)
Nocturno .................... Beltrán Pagola (1878-1950)

Aipamenak: José Luis Ansorenak
Organoz: Lorenzo Ondarrak

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren babespean
Patrocina: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa



## LORENZO ONDARRA

Nafarroan jaio zen, Bakaikoan, 1931 urtean.

Bere musika lehen pausoak fraidetzarako istudieloekin batera egin zituen, Aita Kaputxinoen ordenean egin ere.

Donostiako Musika Kontserbatorioan amaitu zituen musika istudioak AMAIERAKO SARIA irabaziz.

Organista laguntzaile bezala Euskal Herriko abestalde askoren saioetan hartu izan du parte, eta bereziki Errenteriako Andra Mari Koralarekin.

Zenbait ospakizunetan, inaugurazioetan, organo jaieldietan, Gipuzkoako Aldundiak antolatutakoetan adibidez, bera izan da kontzertu emaile.

Gehienetan estaduaren ipar aldeko probintzietan ihardun izan badu ere, noizbehinka Madrilen, Belgikan eta Alemanian ere agertu izan zaigu.

Egungo musikagile bezala ere ikustekoa da. Horra hor, adibidez, «Diálogos» 1969 urteko sari nazionalaren irabazlea. Kuerdarako idatzitako bi sextetoak MUSIKASTE 74an estrainatu ziren.

Nació en Bacaicoa (Navarra) en 1931.

Primeros estudios musicales, alternando con los eclesiásticos en la Orden Capuchina, a la que pertenece.

Coronó estos estudios en el Conservatorio de San Sebastián, que concluyó con premio FIN DE CARRERA.

Como organista acompañante ha colaborado con gran número de Coros del País Vasco, particularmente con la Coral Andra Mari, de Rentería.

Como concertista, ha intervenido en inauguraciones y acontecimientos especiales, semanas musicales y culturales, festivales de órgano, como el de la Diputación de Guipúzcoa.

Las provincias norteñas han sido su escenario habitual, pero esporádicamente ha intervenido en Madrid, Bélgica y Alemania.

Es muy importante su faceta de moderno compositor, entre cuyas obras destacaremos «Diálogos», premio nacional 1969, para órgano y dos sextetos de cuerda, obra estrenada en MUSIKASTE 74.



EVSKO KLASIKOAK

CLASICOS VASCOS

## Maiatzak 17, asteazkena
## Arratsaldeko 8 etan

Salón Victoria
Zineman

## Miércoles, 17 de Mayo
## 20 horas

Salón Victoria

Hilarión Eslava Kamara Musika lanetan

Ave maris stella .................................. Hilarión Eslava
(Kontralto eta kuerda)

El Penitente ........................................ Hilarión Eslava
(Mezzosoprano eta kuerda)

Andante y allegro ................................ Hilarión Esalava
(Oboe eta kuerda)

Addio nel mare ..................................... Hilarión Eslava
(Soprano eta piano)

Paráfrasis de Job .................................. Hilarión Eslava
(Tenor eta piano)

Andante y allegro ................................. Hilarión Eslava
(Klarinete eta kuerda)

Soprano: María Luisa Busselo

Mezzosoprano: Isabel Egüia

Tenor: Angel Iriondo

Oboe: Alfredo Rodríguez

Klarinete: Angel Maeztu

Pianista: Lutzi Mancisidor

Donostiako Barroko Taldea,

Tomás Aragüesen zuzendaritzapean

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren babespean.

Aldundi Foral Agurgarriko Kultura Laguntzailearen Batzordea.

Patrocina: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
Junta de Cooperación Cultural de la Excma.
Diputación Foral.

Pianoa: Erbiti Etxea



# DONOSTIAKO BARROKO TALDEA

Zuzendaria: Tomas Aragües

Donostiako Barroko Taldea 1974 urtean sortu zen, apirilean.

Konserbatorioko zenbait ikaslek, eta lehenago ikasle izandokaek, bakarka ezezik, elkarturik musika jo eta landu beharra sumatu zuten. Talde hau hortiz sortu zen.

Hasera haseratik, taldeari hobekien zegokion musika Barrokoa zela ikusi zuten. Eta hemendik datorkio taldeari izena.

Geroztik, piskanaka, taldearen ahalmena ugalduz joan da eta gaurregun 23 instrumendistek osatzen. Hauetarik badira 2 eta 3 instrumendu jotzen dutenak: 8 biolin, 3 biola, 3 biolontxelo, kontrabajo 1, metalezko laukotea (2 tronpeta, tronpa eta tronbon bana), barroko flauten laukotea, 3 flauta trabersera, oboe 1, espinete eta perkuzio tresna bana.

Donostiako Barroko Taldeak, sortu zenez geroztik, eten gabeko lanean diharatu, probintziar zehar emanaldi eta kontzertu ugari eskaini du geroz eta txalo gehiago jasoz.

MUSIKASTEko saio hontan ez dira denak agertzen, aurrez aukeratutako obrek ez bait dute hainbesterik eskatzen.

El Conjunto Barroco de S. Sebastián fue fundado en abril de 1974.

La idea nació de un grupo de alumnos y antiguos alumnos del Conservatorio que sintieron la necesidad de hacer música en común, como complemento de las clases individuales.

Desde el primer momento se vio que el repertorio que mejor se ajustaba a sus posibilidades era la música del Barroco. De ahí la denominación del grupo.

Poco a poco se han ampliado las facultades del conjunto, hasta situarse hoy en 23 instrumentistas, de los que algunos tocan 2 y 3 instrumentos distintos: 8 violines, 3 violas, 3 violoncellos, 1 contrabajo, cuarteto de metal (2 trompetas, 1 trompa, 1 trombón), cuarteto de flautas barrocas, 3 flautas traveseras, 1 oboe, 1 espineta y percusión.

El Conjunto Barroko de San Sebastián, desde sus orígenes ha ejercido una constante actividad, dando audiciones y conciertos en numerosas localidades de nuestra provincia con éxito siempre creciente.

Su actuación en MUSIKASTE no presenta la plantilla completa del grupo, porque la instrumentación de las obras programadas no lo requiere.

# KORAL EGVNA
# DIA CORAL



## Maiatzak 18, osteguna
## Arratsaldeko 8,30 etan

Aita Kaputxinoen
Elizan

## Jueves, 18 de Mayo
## 20,30 horas

Iglesia Parroquial de
Ntra. Sra. de Fátima (P.P. Capuchinos)

Lehen saioan

Ave María ........................................ Hilarión Eslava
Stabat Mater (abrerviado) ........................ Hilarión Eslava
O salutaris hostia ............................... Hilarión Eslava
Coro de pobres que piden limosna (fuga bella) H. Eslava
El amanecer ...................................... Hilarión Eslava

Bigarren saioan

Ad Sanctum Ignatium a Loyola .... Eduardo de Gorosarri (1889-1947)
Adiyo ........................ Secundino Esnaola (1878-1929)
Dantza, dantza, dantzari ................. Ricardo Sabadie
Sacris solemniis ............... Beltrán Pagola (1878-1950)
Baratzeko pikuak-Tunkulun tunkulun Juan María Ugarte (1878-1956)
Neure gelako txoritxoari ................. Juan María Ugarte
Argia! ................................... José Luis Ansorena

Elizondoko Korala
Algortako Biotz Alai Taldea
Donostiako Donosti-Ereski Koroa
Errenteriako Oiñarri Koroa
Errenteriako Andra Mari Korala
Organista: Lorenzo Ondarra

Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren babespean

Patrocina: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián



# ELIZONDO KORALA

Abestaldea 1942 urtean gaurregun bere zuzendaria den Juan Erasok sortu zuen.

Bere bizi luzean zehar, abesti saioetan goruntz joaz, estiloz desberdinak diren programak landu izan ditu, bai Pizkunde garaiko musika korala, Barrokoarena, Romanikoa eta Egungoa.

Llangollen-en (Bretania Handian) bi lehen sari irabazi zituen 1953 urtean, eta epai makoek honela mintzatu ziren: «Koral talde bikaina, ezin hobea, teknikaz eta disziplinaz arrigarriro osatua. Ritmikoa, distirakorra, lilluragarria!

Aristik ibilaldiak egin zituen.

Ibilaldi artistikoak egin zituen Frantzian, Italian, Austrian eta Suizan zehar. Erromako festibalean lehen saria eman zioten polifonia profanoaren sailean eta bigarrena Polifoniaren sakratu sailean.

Bereziki landu dituen doaiak: ahotsaren gardena esakera garbiz, eta expresio sentimen berezia.

Fue fundada por su director Juan ERASO, en el año 1942.

En su ya prolongada existencia ha tenido momentos de gran superación en las cualidades vocales permitiéndose llevar en sus programas los diferentes estilos de la música coral desde el esplendor del Renacimiento, Barroco, Romántico y contemporáneo.

El año 1953 en los célebres festivales de Llangollen (Gran Bretaña) obtuvo dos primeros premios y el jurado se expresó así: «Un conjunto Coral exquisito, insuperable, con una técnica y disciplina asombrosas ¡Rítmico, brillante, arrebatador!

Realizó excursiones artísticas por Francia, Italia, Austria y Suiza y en los festivales de Roma fue galardonada con el primer premio de Polifonía profana y segundo premio de Polifonía sacra.

Sus más relevantes cualidades son las de su diafanidad vocal a través de una clara dicción y una extraordinaria sensibilidad expresiva.

## BIOTZ ALAI KORALA

1926 urtean sortua, andrazko eta gizonezko talde bezala. Gaurregun, gizonezko talde bezala 1966 urtean eman zion hasera Juan José Gainzaren gidaritzapean. 1969 urtean Tolosako Leihaketan parte hartzen du eta lehen geldítzen da gizonezko taldeen artean.

1970 Lehen Saria jaso zuen eta interpretazioaren saririk hoberena Torreviejan eskualde abestiak gogoan hartuz. 1972 urtean, berriro Torreviejan, Urre Medalla Polifonian.

Espainako zenbait hiriburutan parte hartu izan du, Salamancan, Madrilen, eta abar. Baita Euskal Herriko hiriburutan ere. Telebisioan eman zuen saioa txalotua izan zen.

Euskal Herriko herririk nagusienetan bere emanaldiak ezagunak izan dira.

1971 urtean Llangollen-en parte hartu zuen eta bertan interpretaerazia izan zen obra Londresko BBCek aukeratu zuen berreskaini zezan.

1972 urtean, Bilboko Teatro Buenos Aires deritzan antzokian berebiziko garaitzapena Sinfonia Orquestarekin emanikako saioan.

Fue fundado en 1926, como agrupación de voces mixtas. La actual agrupación, de voces graves, inició su actividad bajo el director Juan José Gainza en 1966.

En 1969 intervino en el I Certamen de la Canción Vasca de Tolosa, consiguiendo clasificarse el primero entre los coros de voces graves.

En 1970 fue Primer Premio y Medalla de Oro en Torrevieja, además de premio especial a la mejor interpretación de la canción regional. De nuevo en 1972 Medalla de Oro en Polifonía en Torrevieja.

Ha intervenido en importantes capitales, como Madrid, Salamanca, y las del País Vasco. Fue muy destacada su actuación en Televisión Española.

Así mismo se han repetido sus conciertos en las principales poblaciones del País Vasco.

En 1971 concursó en Llangollen y la interpretación de la obra obligada fue seleccionada por la BBC de Londres para su retransmisión.

En 1972 en el teatro Buenos Aires de Bilbao con la Orquesta Sinfónica, obteniendo un clamoroso éxito.

## DONOSTIAKO DONOSTI-ERESKI KOROA

Stella Maris eta Sine Domine koroak 1971 elkartuz sortzen duten abesbatza da hau.

Oraindik sortu berria den arren, 1971an CATek Donostian antolatukako saiorik eskaini zuen Aste Santuan. Urte horretan bertan Tolosan CITek antolatutako Eusko Abesti Sariketan hirugarrena irabazten dute.

Hurren urtean 1972an, berriro bertara azaltzen da eta lehen saria jasotzen du.

1977'tik asita Mikel Amantegui da Kororen zuzendaria.

Se constituye en 1971, como consecuencia de la fusión de los coros Stella Maris y Sine Nomine.

En su corta vida, interviene en el ciclo musical de Semana Santa 1971, organizado por el CAT de San Sebastián.

En octubre del mismo año obtiene el tercer premio en el Certamen de la Canción Vasca que organiza el CIT en Tolosa.

En octubre de 1972 vuelve a concursar y obtiene el primer premio.

Desde 1977 Miguel Amantegui dirige el coro.

## ERRENTERIAKO OIÑARRI KOROA

Hezketa lanak, abesti sailetan Errendi'ko ikastolan egin izan den hezketa lanak bere emaitza eskaint du, eta bertan, Andra Mari Koralaren arduradunei eskerrak, neskatilen abestaldea sortu da Oiñarri Koroa. Bere deiturak erakusten digunez, ikasle hauek izango dira Andra Mari Koralaren geroaren oinarri eta eusgarri.

Ikasleekin egindako lanak halako itxaro aldia eskatzen du, abotsaren aldaketa eta eboluzioa berezkoa bait da eurengan.

Oiñarri Koroak bere aurkezpena egin zuen MUSIKASTE 76 saloan.

La tarea de educación para el canto coral, que se viene realizando en la Ikastola Orereta de Rentería, ha culminado con la creación del Coro femenino Oiñarri, por iniciativa de los directivos de la Coral Andra Mari. De esta manera las alumnas más maduras constituyen un coro juvenil que viene a ser base y cimiento (oiñarri) de la Coral Andra Mari futura.

La misma atención a los alumnos exige una lógica espera, por el cambio y evolución natural de la voz en ellos.

El Coro Oiñarri hizo su presentación en MUSIKASTE 76.

## ERRENTERIAKO ANDRA MARI KORALA

1967'ko urtean sortu zan.

1968'an Gazteiztar Abesti Jai-aldian Brontzeko medalla irabazi zuen, eta baita Brontzeko dedu-domina Torreviejan.

1969 urtean joan zan berriz Torreviejako abesti-txapelketara, urreko medalla irabaziaz oraingo aldiyan. 1970'ko urtean Arezzon (Italiya) esku artu zuan eta 1971'an Gavan (Barcelona) abestaldeko Jai-aldi Nazionalian. 1972 urtean musikaldi mordoska eman zituan Belgikako erri auetan:

De Haan, Westende, Lebbeke, Averdobe eta Vijvers'en.

Bere ainbeste agiletasunetik nabari-arazi bear ditugu bere programaren aberastasun eta desberdintasunak.

Fue fundada en 1967.

En 1968 alcanzó Medalla de Bronce en el Festival de la Canción Alavesa (Vitoria) y asimismo Medalla de Bronce en Torrevieja. En 1969 volvió a concursar en Torrevieja, consiguiendo en esta ocasión la Medalla de Oro. En 1970 participó en Arezzo (Italia).

En 1971 intervino en el Festival Nacional de Coros en Gavá (Barcelona). En 1972 dió una gira de conciertos en las poblaciones belgas de De Haan, Westende, Lebbeke, Averdobe y Vijvers.

Entre su constante actividad, se destaca la pluralidad de sus programas.

# ABANGOARDIA EUSKO MUSIKA GIZONAK

# MUSICOS VASCOS DE VANGUARDIA

Maiatzak 19, ostirala
Arratsaldeko 8,30 etan
Aita Kaputxinoen
Elizan

Viernes, 19 de Mayo
20,30 horas
Iglesia Parroquial de
Ntra. Sra. de Fátima (P.P. Capuchinos)

Lehen saioa

Credo .................................... Luis de Pablo
Asi .................................... Carmelo Bernaola
Aschermittwoch (Austerre) .......... Agustín González Acilu

Bigarren saioan

De profundis .................................... Anton Larrauri
Silencios ondulados .......................... Félix Ibarrondo
Tauromaquia .................................... Tomás Marco

José Luis Ochoa de Olza, barítono
MUSIKASTEko Kamarazko Orkesta
Zuzendaria: José M.ª Franco Gil

Aurrezki Kutxa Munizipalaren babespean
Musikako Zuzendaritza Orokorra

Patrocina: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián
Dirección General de Música



## LUIS DE PABLO

Bilbon 1930 urteko urtarrilean jaio zen. Handik zazpi urtetara, 1937an, Ondarrabian musika ikaste lanetan hasi zen. Bi urte geroago, 1939an Madrilera jotzen du eta bizitzen hemen jartzen da. Autodidakta gisa serial musikaz kezkatzen da.

1953 urtean musika konposatzen hasten zaigu eta 1958 «Musika berria» taldea sortzen du.

1959an Darmstadt-era bere lehen txilaldia egiten du.

Bera tardeko da Palermoko Lehen Jaialdian eta «Gazte Musikalari»-en lehendakari izendatzen dute. Bere lanak Darmstadt-en azaltzen dira 1961 eta 1962 urtetan. 1967 urtean Berlin bizi den musikagile gisa deia jasotzen du (DAAD).

1968 urtean kulturaren alde Europako Elkarteko izendatzen dute eta enkargu berezi bat jaseko du Royango jaialdikoek eskaturik urte horretan bertan. 1969 eta 1970 urtetan Frantziako Akademiaren Sari Nagusia irabazten dute bere dizka lanak.

Persepolisko jaialdian ere han ikusten dugu eman dioten enkargua beteaz.

Maurice Fleuret berak ere bi egun eskaintzen dizkio, Parisen, 1970 urteko urrian S.M.I.P. delakotan.

Madrileko Conservatorio, musika ikastetxeko irakasle izendatzen dute eta baita Búfalo EE.UU.-ko unibertsitatean aldizka irakas saioak eskaini ditzan.

Lanak: «Radial», «Polar», «Modulos I hasi eta VI raino», «Imaginario I eta II», «Iniciativas», «We», «Natural»...

Nacido en Bilbao en enero de 1930. Comienza sus primeros estudios musicales en 1937, en Fuenterrabía.

En 1939 se traslada a Madrid, donde fijará su residencia definitiva. Se interesa como autodidacta por la música serial.

Comienza a componer en 1953 y en 1958 funda el grupo «Nueva Música».

En 1959 hace su primer viaje a Darmstadt y crea «Tiempo y Música». Sigue las enseñanzas de Max Deutsch, en 1960, entablando gran amistad con él. Participa en el I Festival de Palermo y es nombrado Presidente de Juventudes Musicales.

Sus obras son interpretadas en Darmstadt en 1961 y 1962.

En 1967 es invitado como compositor residente en Berlín (DAAD). Es elegido miembro de la Sociedad de Royan.

Obtiene el Gran Premio de la Academia Francesa del Disco en 1969 y 1970. Participa con un encargo en el festival de Persépolis. Maurice Fleuret le dedica dos días en los S.I.M.P. en octubre de 1970, en París.

Ocupa un puesto de profesor en el Conservatorio de Madrid y temporalmente una cátedra en la universidad de Búfalo (EE.UU.).

Obras: «Radial», «Polar», «Módulos I a VI», «Imaginario I y II», «Iniciativas», «We», «Natural», etc.

## CARMELO A. BERNAOLA

Otxandion jaioa. Madrilen istudiatu zuen Blanco, Massó, Calés eta Julio Gómez irakasle zituelarik. Sari berezia jasotzen su Armonian, Kamara Musikan, Kontrapunto eta Fugan, eta konposaketan.

Romako Sari Nagusia irabazten du 1959 eta Espainiakoa 1967an. Gazte Musikalarien Lehen Saria irabazten du urte horretan bertan eta baita Zinema Musika sailean ere.

Roman Petrassiren aholkuak eta esanak jasotzen ditu eta Darmastadt-en Madernarekin lanean ari da. Celibidache, Tansman eta Jolivet irakasleen erakutsiak bereganatu ditu.

S.I.M.C. erakundeko espainiar batzordekoa da, Antzerki Goi Batzorde Nagusikoa, Espainian Liturgiaren Idazkaritzaren aholkulari.

Bere lanak Parisen, Varsovian, Barcelonan, Nurenbergen, Lisboan, Donostian, Salamancan eta beste hiri nagusitan antolatu diren Gaurko Musika jaialditan entzun eraziak ditu.

Gaurregun, gure musikalariak irakankintzari ekin dio Madrileko Real Conservatorio de Música ikastetxean».

Lanak: «Superficiales, N.º 1 a 4», «Espacios variados», «Mixturas», «Traza», «Heterofonías», «Impulsos», «Oda fur Marisa», «Polifonías», et abar.

Nacido en Ochandiano en 1929. Estudió con Blanco, Massó, Calés y Julio Gómez en el Conservatorio de Madrid, obteniendo los premios extraordinarios de Armonía, Música de Cámara, Contrapunto y Fuga y Composición. Gran Premio de Roma 1959.

Premio Nacional de Música en 1967. En este mismo año Premio de Juventudes Musicales y Premio Nacional de Música Cinematográfica.

En Roma recibió consejos de Petrassi. En Darmstadt trabajó con Maderna.

Ha participado en cursos dictados por Celibidache, Tansman y Jolivet. Es miembro del Comité Español de la S.I.M.C.; del Consejo Superior de Teatro, Consultor del Secretariado Nacional de Liturgia.

Sus obras se han escuchado en los Festivales de Música Contemporánea de París, Madrid, Varsovia, Barcelona, Nuremberg, Lisboa, San Sebastián, Salamanca, Granada, etc...

Actualmente nuestro músico desempeña la enseñanza de música actual en el Real Conservatorio de Música de Madrid.

Obras: «Superficies n.º 1 a 4», «Espacios variados», «Mixturas», «Traza», «Heterofonías», «Impulsos», «Oda fur Marisa», «Polifonías», etc...

## AGUSTIN GONZALEZ ACILU

Alsasuarra, 1929 urtean jaioa.

Bere sorterrian hasten da musika ikasten 1941 urtean Luis Taberna, bertako organista, irakasle duelarik.

Gero Madrileko Conservatorioan jarraituko du: Armonia, Enrique Mansorekin, Contrapunto Francisco Gales jaunarekin, Fuga eta Konposaketa Julio Gómez irakaskintzapean. Nafarroako Aldundiak diruz babesten duelarik bere istudioak Parisen, Venecian eta Roman jarraitzen ditu. 1964 urtean Darmstadt-en eta Venecian, jaialdifara deiturik. Ikusten dugu, 1966 urtetik aurrera Linguistikak eta musikak izan dezaketen zer ikusia aztertzen du. Bellas Artes Akademiak beste beka bat eskaintzen dio, «Carmen del Río» deritzen beka hain zuzen. «Sucesiones superpuestas» arkodun laukotearentzat prestatutako lanak «Samuel Ros» saria irabazi zuen 1962 urtean. Bekak irabazten ditu. 1968-69 urtean azaldutako musika onentsuen bezala «Accesit» irabazi zuen. S.I.M.C. delako azken finalista izatera iristen da Espainiako Musika sailean 1971 urtean azaldutako sailean 1971 urtean Espainiako «Premio Nacional de Música» sari nagusia. «Beca Juan March» 1972 urtean.

Amerika eta Espainia arteko Musika II Jaialdian bere lanak aurkezten ditu. Baita Espainia eta Portugalen artean egin izan duten Gaurko Musika saiotan ere.

Madrilen, Barcelonan, Donostian eta beste zenbait tokitan Musika Berriaren gaia erabili izan denean Agustín Gonzalez beti tarteko izan da.

Lanak: «Aschmittwoch», «Contracturas», «Interfonismos», «Simbiosis» eta abar...

Nacido en Alsasua (Navarra) en 1929. Inicia los estudios musicales en su villa natal con el organista Luis Taberna en 1941, continuándoles en el Conservatorio de Madrid con Enrique Massó (Armonía), Francisco Calés (Contrapunto) y Julio Gómez (Fuga y Composición).

Becado por la Diputación de Navarra amplía estudios de composición en París, Venecia y Roma. En 1964 asiste como invitado al festival de Darmstadt y al de Venecia. A partir de 1966 realiza trabajos de investigación lingüística aplicada a la música.

Obtiene en la Academia de Bellas Artes la beca «Carmen del Río». En 1962 el premio «Samuel Ros» por su cuarteto para instrumentos de arco «Sucesiones superpuestas».

Diversas becas. «Accésit» a la mejor composición española estrenada en la temporada 1968-69.

Finalista por la Sección Española de la S.I.M.C. Premio Nacional de Música 1971. «Beca Juan March» 1972.

Ha participado con sus obras en el II Festival de Música de América y España. En las Jornadas Hispano-Portuguesas de Música Contemporánea (Portugal). En las Semanas de Música Nuevas, de Madrid, Barcelona, San Sebastián, etc...

Obras: «Aschermittwoch», «Contracturas», «Interfonismos», «Simbiosis», etc...

## ANTON LARRAURI

Bilbotar musikagilea, bere gisa, autodidakta gisa, ikasi duena. «EL CORREO ESPAÑOL EL PUEBLO VASCO» egunerokoaren musika kritikoa 1960-1971 urtetan, hots, Letrasko karreraz lan eginaz bizi izan denboraldiitsua.

Bi hegal ditu bere lanak:

Egungo musikaren aldetik euskal izatearen muina jasoz bere partituretan itsasten saiatzen da.

Musika tradizionalaren aldetik, lehen aipatuarekin desberdina baina berak egiten duen aukeraren arabera konprenigarria.

Bere egungo musika: «Dédalo», «Apokastatasis» eta «Contingencias» orkesta handiaren sailean: «Ezpatadantza» eta «Omnia» orkestaz eta koro mixtoaz; «Zantiretu» kapellaz koro mixtoa; «Aldatza», abots batez, abots eta kamara taldez, edo ta abots eta orkestaz; «Munduak», abots eta lektronikaz; «Dualismos» pianoz bakarrik; «Aitza», pianoz, haize taldez eta perkuziez; «Laguna negra de Neira» Moog simetizadorez; «Fluctuante», «Bederatzi», «Grimorios» eta «De Profundis» kamara taldez; eta «Galaxia» organoz.

Bere musika tradizionalean: «Gardunak» eta «Ari-ta-ari» orkesta handiarentzat herrikoi euskal gaiak hartuz; «Misa sencilla del pueblo», abots batez eta organoz, abots eta haizez» kintentoa; «Itzali Eziña», «Dirdiz» eta «Portu Errota» (euskal musikalariaren gai bereziz) koru mixtoarentzat; «Zaintsu» (herri gaiez) gizonezkoen koruarentzat; «Itzali Eziña» eta «Maritxu» (bere gaie) lehenengoa eta herri gaiez bigarrena) pianoz bakarrik, berriro «Itzali Eziña» eta «Portu Errota», koroaz gain, abots eta laguntzarekin interpretatzeko; «Poesia» organoz; eta «Tríptico Vasco» (herri eta bere gaiak azalduz) gitarraz.

Compositor bilbaíno, de formación musical autodidacta, crítico de música de «EL CORREO ESPAÑOL EL PUEBLO VASCO» desde 1960 a 1971, tiempo más o menos en que ejerció su carrera de letras.

Dos vertientes en su obra:

La de música actual, con una preocupación por llevar a muchas de sus partituras la esencia de la célula popular vasca.

Y la de música tradicional, en contraposición con la anterior pero justificada por las dos trayectorias que toma.

Su producción de música actual: «Dédalo», «Apokatastasis y Contingencias», de gran orquesta; «Ezpatadantza» y «Omnia», de orquesta y coro mixto; «Zantiretu», coro mixto a capella; «Aldatza», de voz sola, voz y grupo de cámara o voz y orquesta; «Diálogos», concierto de piano y orquesta; «Munduak» de electrónica y voz; «Dualismos», de piano solo; «Aitza», de piano, grupo de viento y percusión; «Laguna negra de Neira», para sintetizador Moog; «Fluctuante», «Bederatzi», «Grimorios» y «De Profundis», para grupo de cámara, y «Galaxia», para órgano.

De igual manera, su producción de música tradicional: «Gardunak» y «Ari-ta-ari» (sobre temas populares vascos), para gran orquesta; «Misa sencilla del pueblo», para una sola voz y órgano, o voz y quinteto de viento; «Itzali Eziña», «Dirdiz» y «Portu Errota» (sobre motivos propios del compositor), para coro mixto; «Zaintsu» (sobre temas populares), también para coro, pero de voces graves; «Itzali Eziña» y «Maritxu» (la primera sobre motivo propio y la segunda sobre tema popular) para piano sólo; de nuevo «Itzali Eziña» y «Portu Errota», además de para coro, para voz y acompañamiento; «Poesía», para órgano, y «Tríptico Vasco» (sobre temas propios y populares), para guitarra.

## FELIX IBARRONDO

Oinatin jaioa, 1943 urtean. Bere aitaren laguntzaz abiatu zen, lehenik, musika bideetan, eta konposaketa lanetan Juan Cordero Castaños izan zuen maisu. Parisen harremanik badu Maurice Ohana, Max Deutsch eta Henri Dutilleux-rekin.

Oscar Esplá edo ta Lili Bourlanger gisako sariak jasoak ditu.

Frantziako Kultur Ministeritzak «Vague de fond» egin zezan eskatun zion.

Parisen bizi den musikagile honek ez du bere lanak bere sorterrian interpretatuak ikuzteko zoririk izan: «Baña zergaitik» haize kintetoarentzat «Clair-obscur» pianoz eta klarinetez; «Alucinación» bi kuerdaz; «Sous l'emprise d'une sombre» 1976 urtean, Espainiako Aurrezki Kutxen Elkarteak antolaturiko Kamara Musika III. Sariketan, zilarrezko Arpa Saria jaso zuena; «Oviri», etc... dira bere azken lanak.

Une hontan, aurtengo Avignonge Festibalerako Meza bat prestatzen dihardu «Au bord d'abimes» CECA II. Sariketan finalista izan zen.

Nació en Oñate en 1943, iniciando los estudios musicales con su padre, y trabajando en la composición con Juan Cordero Castaños. Se traslada a París, donde se relaciona con Maurice Ohana, Max Deutsch y Henri Dutilleux.

Ha recibido premios, como el Oscar Esplá o el Lili Boulanger.

El Ministerio de Asuntos Culturales francés le encargó «Vague de fond». Este compositor vasco, residente en París, no tiene la fortuna de que su obra se interprete en su propia tierra: «Baña zergaitik», para quinteto de viento; «Clair-obscur», para piano y clarinete; «Alucinación», para dos cuerdas; «Sous l'emprise d'une sombre», premio Arpa de Plata en el III Concurso de Composición de Música de Cámara, organizado por la Confederación Española de Cajas de Ahorro (1976); «Oviri», etc..., son sus últimas obras.

En la actualidad prepara una Misa para el Festival de Avignon de este año. «Au bord d'abimes» fue finalista en el II Concurso de la CECA.

## TOMAS MARCO

Madrilen jaio izanagatik, jatorriz erronkariarra. Lege, soziologia eta psikologiarekin batera biolin eta konposaketa ikasi zituen musika saileam.

Bere ikas lanak Frantzian eta Alemanian zehar osatu zituen, 1967 Stockhausengo «Ensemble» dalakoan parte hartzen duelarik.

Lan eta sari ugari jaso duen musikagilea dugu, bere lanak goi mailako musika lekuetan entzunaraziak ditu.

Bere lan ezagunenak:
«Aura Blume», «Canto del pozo artesiano», «Aura», «Anábasis», «Mysteria», «Necronomicon», «L'invitation au voyage», «Angelus Novus», eta abar.

Nacido en Madrid, de familia roncalesa. Estudió violín y composición juntamente con la carrera de Derecho y estudios de psicología y sociología. Amplió estudios en Francia y Alemania con diversos maestros, y en 1967 participó en el «Ensemble» de Stockhausen. Ha recibido numerosos premios y encargos, habiéndose escuchado sus obras en muchos centros musicales.

Desde 1962 realiza también labores críticas y ha publicado varios libros.

Obras principales: «Anna Blume», «Canto del pozo artesiano», «Aura», «Anábasis», «Mysteria», «Necronomicon», «L'invitation au voyage», «Angelus Novus», etc.

## JOSE M.ª FRANCO GIL

Madrilen jaioa 1927an.

Bere sorterrian musika saileko ikasketaekin batera industrial injinadore estudiatu zuen.

1954 urtean Parisen jotzen du Pierre Dervaux eta Jean Fourneten gidaritzapean orkestaren zuzendaritzaz jabetzeko asmoz.

Bere istudioak Sienan jarraituko ditu Carlo Zecchirekin eta Hilversumen Albert Wolff maisu duelarik.

1960an Guatemalako Orkesta Nazionaleko zuzendaritza bere esku uzten dute. Bertan bi urte egingo ditu.

1964 urtean Madrileko Kamara Orkestako izendatzen dute eta urte horretan bertan Barcelonako Musika Jaialdi Internazionalean parte hartzen du, geroztik antolatu diren jaialdi askotan bertara joaten jarraituaz.

Askotan Espainiako Orkestak bere zuzendaritzapean saiorik eskaini izan du, baita beste musika taldeek ere. Bai sinfonian bai kamaran zuzendari ikusi dugu musikalari hau.

Musika aurrerakoiaren sailean, banguardia musikan, mundu guztiarentzat antolatutako SIMC jaialdian agertzen da, baita Varsoviako Udazken Jaialdian ere.

Berdin Festival de España y América deritzan horretan, Cuencako Semana de Música Religiosa delagoan, S'Agaró, Granada, eta Santanderko jaialditan.

Dizka ugari grabaturik badu eta horregatik Charles Cros Akademiak Dizkaren lehen Saria eskaini zion bere lanak gogoan izanik.

Bereziki Conjunt Català de Música Contemporánea taldearekin aikartua dago.

Nacido en Madrid en 1927. Cursó en dicha ciudad sus primeros estudios musicales, a la vez que la carrera de ingeniero industrial. En 1954 se trasladó a París, donde se especializó en dirección de orquesta con Pierre Dervaux y Jean Fournet y después en Siena con Carlo Zecchi y en Hilversum con Albert Wolff.

En 1960 es nombrado director titular de la Orquesta Nacional de Guatemala, cargo que desempeñó durante dos años.

En 1964 es titular de la Orquesta de Cámara de Madrid. Este mismo año se presenta en Barcelona en el Festival Internacional de Música, concurriendo con frecuencia en ediciones posteriores.

Ha dirigido en repetidas ocasiones la Orquesta Nacional y todos los grandes conjuntos sinfónicos españoles, así como diferentes grupos de cámara.

Especializado en música de vanguardia, cabe destacar su intervención en el Festival Mundial de la SIMC, Festival de Otoño de Varsovia, Festival de España y América, Semanas de Música Religiosa en Cuenca, Festivales de S'Agaró, Granada y Santander.

Sus diferentes grabaciones discográficas le hicieron acreedor al Gran Premio de Disco de la Academia Charles Cros en 1969.

Está especialmente vinculado al Conjunt Català de Música Contemporánea.

# AMAIERA KONTZERTUA
# CONCIERTO DE CLAUSURA

Maiatzak 20, larunbata
Arratsaldeko 9,30 etan

Aita Kaputxinoen
Elizan

Sábado, 20 de Mayo
21,30 horas

Iglesia Parroquial de
Ntra. Sra. de Fátima (P.P. Capuchinos)

Lehen saioan

Sinfonía fantástica (1842) .......................... Hilarión Eslava
«Il solitario» Operaren sinfonia (1841) ..... Hilarión Eslava
Cantiga XIV del Rey D. Alfonso el Sabio .. Hilarión Eslava

Errenteriako Orereta Ikastolako haur kantariak
Errenteriako Andra Mari Korala
Zuzendari: José Luis Ansorena
MUSIKASTEko Orkesta Sinfonikoa
Zuzendari: José M.ª Franco Gil

Bigarren saioan

Misa en MI bemol ........................................ Hilarión Eslava

Donostiako Orfeoi Donostiarra
MUSIKASTEKO Orkesta Sinfonikoa
Zuzendari: Antxon Ayestaran

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren babespean
Kulturako Ministerioa

Patrocina: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa
Ministerio de Cultura

